

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
PRACTICUM I	151318	2025-2026
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	2	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Derrigorrezkoa	14	EUSKARA
Arduraduna		
Olalla Juaristi Larrinaga		

Justifikazioa
Praktikaldi honen helburu nagusia da, batetik, ikaslea ikastetxeko errealitatera hurbiltzea, ikastetxearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko datuen behaketa, bilketa selektiboa eta azterketa egitea. Era berean, gela edo talde zehatz baten dinamika eta praktika ezagutzuz joango dira, eta arlo soziopedagogiko eta didaktikoei dagozkien datu-bilketa egin eta datuok aztertuko dituzte. Hona hemen ikasgaiaren helburu nagusiak: - Ikastetxean eta ikasgelan tutoreekin eta ikastetxeko beste langileekin lankide izan, gelaren eta ikastetxearen dinamika itxuratzen duten arlo guztietan, irakasle-lanaren agerbide guztiak eta lan hori garatzeko baldintzak ezagutu eta ulertzeko. - Ikastetxearen eta gelaren dinamika osotzen duten arloak behatu, bai eta dinamika horretatik sortzen diren ikas-irakaskuntza prozesuak. Era berean, behatutako errealitatea ulertu eta ondorioak atera, errealitate horretan parte hartuz eta inplikatzuz. - Banakako zein taldeko hausnarketa egin, eta unibertsitatean landutako ereduak ikastetxeko eta ikasgelako errealitatean non ikusten diren eta nola deskribatu.

Aurrebaldintzak
Lehenengo praktikaldia egiteko beharrezkoa da oinarrizko prestakuntzakoak diren ikasgai guztiak matrikulatuta edota gaitututa izatea

Gaitasunak
Gaitasun orokorrak GO.1. SEN ETIKOA. Norberaren edo besteen on moralera positiboki makurtzea (hau da, ongia den edo esan nahi duen guztira, zentzuzko bizipena den guztira, pertsonaren errealizazioa dakarren guztira, justizia den edo esan nahi duen guztira) eta on moral horretan irautea. • 2 Menderatze maila: Balio etikoak eta sentiberatasun morala identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea. GO.2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.

- 2. menderatze maila: Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

GO.2. AHOZKO KOMUNIKAZIOA. Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko.

- 1. menderatze maila. Norberaren ideiak ondo antolatuta eta ulertzeko moduan adieraztea, une egokian mintzatuz eta ekarpen egokiak eginez hala harreman egoeretan nola egoera formalago eta egituratuagoetan.

Berariazko gaitasunak

BG 1. Modu aktibo, kolaboratzaile eta eraginkorrean parte hartzea dagokien hezkuntza-taldeetan, betekizun espezifikoen arabera, ikastetxeetako antolaketaren eta haien funtzionamenduaren inguruko ezagutza erabiliz.

BG.2. Familiekin kolaboratzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea, ikasleen garapen integralerako lagungarriak diren komunikazio- eta orientazio- prozesuak garatuz.

BG.3. Ikerketen emaitzei buruzko hausnarketa eta balorapena egitea, gero irakaskuntza-praxiaren berrikuntza- eta hobekuntza-forma berrien bilaketan erabiltzeko.

BG. 4- Lehen eta Haur hezkuntzako ikastetxeen antolaketa eta haien funtzionamenduaren askotariko ekintzak ezagutzea, eta ideiak eta esperientziak lankideekin konpartitzea, hezkuntzaren praxia hobetzeari begira, hausnarketa eginez eta hausnarketaren eta elkarrizketaren ondorioak praxira eramanez

BG. 5- Ikasgelako eta hezkuntza-testuinguruetako behaketa sistematikoa erabiltzea, eta baita haien gaineko gogoeta ere, norberaren prestakuntza sakontzeko eta prozesuak zein emaitzak hobetzen laguntzeko bide bezala.

BG.6-IKT-ak modu egokian erabiltzea norberaren praxia eta hezkuntza-testuinguruak ikertzeko, informazioa interpretatzeko eta komunikatzeko, arazoak konpontzeko, eta trukerako eta prestakuntza etengabeko sareak eratze



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian

Ikastetxeko hezkuntza proiektuan ikastetxearen proposamen globala eta integrala aurkezten da, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu eta horiek nola bete adierazten du. Proiektu honek ikasleei kalitateko hezkuntza ekitatiboa emateko konpromisoa islatzen du, gizarte bizitzarako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten eta, horien bidez, eskola arrakasta lor dezaten. Marko honetan Garapen Jasangarrirako Helburuak leku garrantzitsua dute ikastetxe gehienek hezkuntza proiektuan, bai balio eta nortasun ezaugarrietan, bai eta ikastetxearen helburu eta lehentasunetan, eta horrek guztiak isla izango curriculumaren eta antolamenduaren esparruan.

Hori horrela izanik, praktiketako ikasleak GJHak nola txertatzen diren ikastetxean eta gelan behatu eta aztertuko du, unibertsitateko irakasle-tutorearen gidaritzapean.

Edukiak

Praktikaldi honetan zehar, ondoko eduki hauek jarriko ditu martxan ikasleak:

- Ikastetxearen tipologia
- Zentroa eta inguruaren arteko harremana
- Ikastetxearen barneko antolamendua eta funtzionamendua
- Gelako plangintza didaktikoa
- Gelako metodologia eta esku-hartze eredua
- Ikasketaren ebaluazioa
- Tutoretza plana

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Praktiketan zehar ikasleek bi tutore izango dituzte: unibertsitateko tutorea eta ikastetxeko tutorea. Tutore hauen laguntzarekin bideratuko dira ikasketa jarduera garrantzitsuenak, ikastetxean eta unibertsitateko mintegietan.

- Esperimentazio aktiboa
- Hausnarketarako behaketa
- Hausnarketa gidatua eta tutorizatua
- Ebaluazio hezitzailea

Ebaluazioa

- Txostenak: %90
 - Gelako Txostena: %50
 - Ikastetxeko Txostena: %40
- Ikastetxeko egonaldia. Tutorearen ebaluazioa: %10

Praktikak gaingintzeko ebaluazio elementu guztiak gaingintu behar dira. Elementu bakoitzaren kopurua zein den erakusten ondoko taula honetan:

	Idatzizko gaitasuna (IG)	Ezagutzak (GB)	Guztira
Gelako Txostena	%10	%45	%50
Ikastetxeko txostena		%35	%40
Tutorearen ebaluazioa	—	—	%10

Adimen artifizialaren erabilera

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikularen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Hizkuntza-mailaren egiaztapena

Ikasgaia gaingintzeko, ikasleek hizkuntza-maila egokia (B2) erakutsi beharko dute, dela BAMen egiten diren berariazko probetan, dela kanpoko deialdi ofizialen batean egindako berariazko proba gaingintu izana egiaztatzen duen agiriaren bidez. Aipatutako B2 maila ikasgaiko deialdiak itxi baino lehen aurkeztu beharko da. Hala egin ezean, praktikak hurrengo urtean errepikatu beharko dira. Bestalde, aipatutako egiaztatze-sistemaz gain, ikasleak hizkuntza-maila egokia erakutsi beharko du bere ekoizpenetan. Hala egin ezean, txostena (eta ondorioz, ikasgaia) suspendituko da.

Dokumentazioa

- Txostena egiteko gidak
- Ikasgida
- Ebidentziak biltzeko fitxak
- Ikastetxeko dokumentuak
- Ikasgai desberdinetan landutako bibliografia